Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Manolo Arotzena Mitxelena

Goizueta, Nafarroa (1949)



Aurkibidea

Biografia



Zintak

GOI-041

- **Proiektua**: Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larretxea Agirre, Ainhoa
- **Data**: 2023-04-13
- **Iraupena**: 39 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Larretxea Agirre, Ainhoa

Pasarteak

1. Manoloren aurkezpena

- **Erref**: GOI-041/001
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Manolo Goizuetan sortua da. 16 urte zituela, Mutrikurat joan zen harrobi batera lanera. Bertan ezkondu eta seme-alabak izan zituen, eta 1975ean Lesakara etorri zen bizitzera familiarekin batera.

2. Lesakara bizitzera joateko arrazoia

- **Erref**: GOI-041/002
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:01:28. **Bukatu**: 00:02:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Manolok garraiolari lanetan hasi nahi zuen, eta Lesakan arlo horretan lan aunitz omen zegoenez, harat joan zen. Geroztik bizi da bertan.

3. Lesakara egokitzea

- **Erref**: GOI-041/003
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:02:33. **Bukatu**: 00:04:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
Manolorendako ez zen sobera zaila izan Lesakara egokitzea, baina emaztearendako, aldiz, zaila izan zen. Emaztea arduratzen zen 3 seme-alabez, eskolaz, etxeaz... Eta hori guztia berria zenez, zaila egin zitzaion. Manolok lehenbiziko urteetan ez zuen harreman handirik izan herriarekin, beraz, poliki-poliki ezagutu zuen bertako giroa.

4. Euskara Lesakan

- **Erref**: GOI-041/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:04:02. **Bukatu**: 00:04:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:
70eko hamarkadan, euskara aditzen zen Lesakako kaleetan. Fabrikarat etorritako erdaldunen eragina sumatzen zen herrian, baina Lesakan sortutakoak euskaraz aritzen ziren, baita haurrak ere. Manoloren seme zaharrena eskolara joan zen, gaztelaniaz, ikastola ez baitzegoen martxan, baina bertze biak ikastolara joan ziren.

5. Manoloren betsozaletasunaren muina

- **Erref**: GOI-041/005
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:04:52. **Bukatu**: 00:06:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Ttikitan, Goizuetan bizi zelarik, bertso pila bat aditu zituen baserrian, amonaren ahotik. Gainera, osaba bat bertsotan aritzen zen batzuetan. Handik hartu zuen Manolok bertsoarekiko zaletasuna. Goizuetatik joan zelarik, mundu hori alde batera utzi zuen Manolok, baina seme-alabak koskortzearekin, bertsoetara bueltatu zen.

6. Paulo Iantzi saria

- **Erref**: GOI-041/006
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:06:20. **Bukatu**: 00:08:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
60ko hamarkadan, bertsolari txapelketak egiten ziren Nafarroan. Manolo Lesakarat bizitzera joan zelarik, ez zuen bertso-soinurik sumatu herrian, 1979an Paulo Iantzi sariaren berri izan zuen arte. Saio hori aditzera joan, eta poliki-poliki inguruko bertsolariak ezagutzen hasi zen.

7. Nafarroako bertso txapelketak

- **Erref**: GOI-041/007
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:08:14. **Bukatu**: 00:09:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Paulo Iantzi saria Nafarroako txapelketa izatera pasatu zen, eta 1983 inguruan Nafarroako Bertsolari Elkartea sortu zen. Elkarteak antolatzen zituen Nafarroako txapelketak, baina Paulo Iantzi sarirako Dionisio Mujikak erabilitako eredua segituz.

8. Manoloren lehenbiziko txapelketa

- **Erref**: GOI-041/008
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:09:03. **Bukatu**: 00:11:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1988an, Nafarroako txapelketan izena ematea erabaki zuen Manolok. Goizuetan kantatzea proposatu zioten lehenbizi, baina ez zuen bere herrian kantatu nahi izan, eta, hondarrean, Nafarroa Behereko herri batean kantatu zuen.

9. Hegoalde eta Iparraldeko nafarrak bertsolari txapelketan

- **Erref**: GOI-041/009
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:11:02. **Bukatu**: 00:12:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Dionisio Mujikak bulkatu zuen Nafarroako txapelketa Hegoalde eta Iparraldeko bi Nafarroetako bertsolariek osatzea.

10. Bertsolaritzaren berpiztea

- **Erref**: GOI-041/010
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:12:06. **Bukatu**: 00:13:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Lesakako herriko etxeko ganbaran antolatzen ziren txapelketak; 40-50 bat lagun elkartzen ziren. Txapelketa haiek berpizte ttiki bat izan ziren bertsolaritzarako, nolabaiteko abiapuntua.

11. Bertsolariak Lesakako ferietan

- **Erref**: GOI-041/011
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:13:27. **Bukatu**: 00:14:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Manolok uste du Lesakako ferietan bertsolariak ekarriko zituztela lehenago, baina ez daki seguru; Bera herrirat bizitzera joan zelarik bederen, ordurako bai, bertsolariak eramaten zituzten. Beti kanpoko bertsolariak izaten ziren, herrian ez baitzegoen bertsotan aritzen zenik.

12. Manoloren bertso bidearen hasiera

- **Erref**: GOI-041/012
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:14:48. **Bukatu**: 00:15:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Manolo bertso txapelketara joan zelarik, ez zen inoiz bertso eskolan egona eta ez zuen inoiz plaza batean kantatua. Halere, finalera ailegatu eta bigarren gelditu zen. Iruñeko Gaiarren izan zen finala.

13. Txapelketaren ondotik, bertso-saioetara

- **Erref**: GOI-041/013
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:15:49. **Bukatu**: 00:17:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Lehenbiziko txapelketa haren ondotik, bertso saioetan parte hartzen hasi zen Manolo; Igantziko bertso-bazkari bat izan zen lehenbizikoa. Denbora tarte ttikian, ezaguna egin zen bertsolaritzaren munduan.

14. Irabazitako txapelketak

- **Erref**: GOI-041/014
- **Iraupena**: 0:00:31. **Hasi**: 00:17:33. **Bukatu**: 00:18:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Irabazitako txapelketen errepasoa egiten du Manolok.

15. Bortzirietako bertso-eskola eta txapelketaren gaztetzea

- **Erref**: GOI-041/015
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:18:04. **Bukatu**: 00:22:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
90eko hamarkadan, Bortzirietan bertso-eskola bat sortzeko bidean hasi ziren. Lesakako ikastolan bertsolaritza ematen zuten, eta hango haur batzuek bertsotan aritzen ikasi zuten. Hala, hortik abiatuta, Lesakan sortzea erabaki zuten, ikasle haiei segida eman ahal izateko. Arantzako haur batzuk ere bazekiten bertsotan, eta hantxe elkartzen ziren denak. Nafarroako txapelketan parte hartzen zutenak zaharrak zirela ikusita, hura gaztetzeko modua bilatu zuten. 1993an, bertsolari gazteak sartu ziren txapelketan.

16. Bertso eskoletan egiten zutenaz

- **Erref**: GOI-041/016
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:22:02. **Bukatu**: 00:23:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Hasierako bertso-eskola hagitz sinplea zen. Bertsolari txapelketetan kantatutako bertsoen fotokopiak erabiltzen zituzten, bertan erabilitako doinuak kantatu... Klaseetan zer egiten zuten azaltzen du Manolok.

17. Belaunaldi berriek bertsolaritza hauspotu

- **Erref**: GOI-041/017
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:23:30. **Bukatu**: 00:25:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Garaiko bertsolari gazteak erreferente ziren bertso eskoletan, eta beren bertsoak erabiltzen zituzten klaseetan. Belaunaldi berriak, Amurizak erraterako, bertsoak egiteko bertze modu bat ekarri zuen. Mugimendu hark guziak izugarri hauspotu zuen bertsolaritza.

18. Bertsolaritza euskararen lagun

- **Erref**: GOI-041/018
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:25:04. **Bukatu**: 00:26:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Manoloren ustez, bertsolaritzak euskara bulkatzen laguntzen du, nahiz eta bertsoak aditzera joaten diren guziak gero euskaraz ez ari. Emakumeak bertsolaritzaren munduan gero eta gehiago ikusteak ere indarra ematen du.

19. Bortzirietako bertso-eskolaren garapena

- **Erref**: GOI-041/019
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:26:50. **Bukatu**: 00:29:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bortzirietako bertso-eskola garrantzitsua da Euskal Herri mailan. Lehenbizikoetarikoa izan zen Nafarroa mailan. Eragin handia ere izan du; bertsolari onak atera dira bertatik. Manolo harro dago bertso-eskolak izandako garapenaz eta emaitzaz.

20. Bittor Elizagoieni buruz

- **Erref**: GOI-041/020
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:29:31. **Bukatu**: 00:30:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bittor Elizagoien hagitz garrantzitsua izan da Manolorendako; elkarrekin aritu ziren bertso-eskolan irakasle, eta eskolarako ere hagitz inportantea izan zen.

21. Euskaltegiarekin harremana

- **Erref**: GOI-041/021
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:30:28. **Bukatu**: 00:31:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Euskaltegiarekin harremana izan du bertso-eskolak. Barnetegietan beti antolatzen zen bertso saio bat. Manolok ez du gogoan euskararen alde lan egiten zuen talderik garai hartan.

22. Egindako bidearen balorazioa

- **Erref**: GOI-041/023
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:31:54. **Bukatu**: 00:33:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsotan hasi zelarik, 50 bat saio eman izanen zituen Manolok 3-4 urtetan. Halere, iruditzen zaio ez zegoela sobera prestatua. Bertso munduko oroitzapen hagitz onak ditu Manolok; lagun aunitz egin zituen.

23. Txapelak jendea erakartzeko

- **Erref**: GOI-041/024
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:33:49. **Bukatu**: 00:35:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Irabazitako txapelek baino gehiago, eskolan aritzen zirenak bertsotan ikusteak sortzen dio Manolori harrotasuna. Berak beti erabili izan ditu txapelak jendea erakartzeko.

24. Belaunaldi eta metodo berriei lekua bertso-eskolan

- **Erref**: GOI-041/025
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:36:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertsolaritzaren garapena ikusita, trabarik ez egitea eta belaunaldi berriei bidea egiten uztea garrantzitsua da Manolorendako. Egungo bertso-eskolak arrakasta badu, egun bertan aritzen direnei esker da.

25. Bertsolaritzaren garapen pozgarria

- **Erref**: GOI-041/026
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:36:44. **Bukatu**: 00:39:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalean nafar bat egon izana pozgarria eta harro egoteko modukoa da Manoloren ustez. Emakumearen presentziak ere berritasunak ekarri ditu bertsoaren mundura. Aldaketa horiekin guziekin kontent dago Manolo.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-19

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com